

ATEGI
IKT



Erosketa-prozesuan adituak gara eta gure bezeroen aurrerapena da gure xedea.

Gure helburua da gure bezeroei errentagarriagoak eta lehiakorragoak izaten laguntzea, dauden tokian daudela

Nazioarteko taldea dugu, guztira 35 espezialista baino gehiago mundu osoan (USA, Mexiko, Espainia, India, Txina, Vietnam eta Taiwan), erosketa integral bat eskaintzen duena eta bezeroaren beharretara pertsonalizatua

GURE BALIOAK

lankidetz

300 enpresak eta enpresa-taldek baino gehiagok erabaki dute beren erosketen kudeaketa ATEGIN zentralizatzea, kostuak murrizteko eta beren enpresa arloko eraginkortasuna eta errentagarritasuna areagotzeko

aurrerapena

Gure bezeroen mozkinak maximizatzeak eta gure inguruan aberastasuna sortzeak mugitzen, motibatzen eta inplikatzeko gaitu. Enpresa errentagarriak eta sendoak izaten laguntzea, eraginkorra da gure gizartean aurrerapen jasangarria (etika, gizarte, lan eta ingurumen arlokoa) sortzeko

espezialistak

Know how, profesionaltasuna, zorroztasuna, metodologia, taldea, esperientzia, etengabeko hobekuntza, etab...

ATEGIk kudeaketa espezializatua egiten du erosketa-familia bakoitzean (energia, garraioa, telekomunikazioak, etab.), bezero bakoitzaren beharretarako pertsonalizatzen du eta erosketa-prozesuaren zerbitzu osoa eskaintzen du

gertutasuna


Gertutasuna, entzute aktiboa eta elkarrekintza dira komunikazioaren oinarriko osagaiak. Eta gure bezeroekiko kudeaketan, aukeraz betetako bidea da komunikazio ona. Harreman guztietan konfiantza funtsezkoa dela ere badakigu, horregatik saiatzen gara gure lana egiteko modua eta metodologia gardentasun osoz partekatzen

ZERBITZUAK



Aholkularitza

- Lehiarako kokapenaren diagnostiko pertsonalizatua egiten dugu
- Zure enpresarentzako erosketa-estrategiarik egokiena aztertzen dugu (kostuak murriztu, prozesuak hobetu, nazioartekotzea, etab.)
- Eraldaketa plana diseinatzen eta hedatzen dugu



Erosketen Zentrala

- Erosketa irtenbidea pertsonalizatzen diogu bezero bakoitzari
- Erosketen kudeaketa bateratu eta zentralizatua egiten dugu
- Erosketa bolumenak piltzen ditugu, beharrak koordinatuz
- Kontratazio eta zerbitzu baldintzak optimizatzen ditugu



Erosketa zerbitzuak

- Proiektuak neurrira egiten ditugu
- Hornitzaileen prospekzioa, ikuskaritza eta ebaluazioa egiten dugu
- Negoziatu egiten dugu, kontratuak eta esleipenak kudeatzen ditugu
- Erosketa prozesua antolatzen dugu
- Gastuaren kontrola aztertzen dugu

KATEGORI- AK

IKT

Informazio eta Komunikazio Teknologiak ezinbesteko tresnak dira enpresen lehiakortasuna ziurtatzeko. Lana egiteko eta baliabideak kudeatzeko daukagun modua eraldatu dute.

Funtsezko elementuak dira gure lana produktiboagoa izan dadin: komunikazioak bizkortzen dituzte, taldeko lana sustatu, izakinak kudeatu, finantza azterketak egin, gure produktuak sustatzen dituzte merkatuan, etab.

Gure bezeroen beharrak eta erosketa bolumenak taldekatzen ditugu eta nazio-arteko lehen mailako eragileekin negoziatzen ditugu esparru-akordio estrategikoetan. Horri esker, gure bezeroentzako kostuak aurrezten ditugu, zerbitzuen es-taldura-bermeak hobekuntzak izaten ditu eta eragiketa eta finantza arloko arriskuak txikitu egiten dira.

Erosketa maila honetan 2 arlo jorratzen ditugu: Informatika eta Komunikazioak.



Informatika

Ategin, gure bezeroekin lankidetzan aritzen gara ITak planifikatzen, haien negoziarako kostuak hobe daitezten. Gure bezeroei balioa ematen diegu, punta-puntako hornitzaile eta partner sarearekin negoziatuz; hornitzaile eta kide horiek bezeroen beharren arabera irtenbide eta zerbitzu teknologikoak kudeatzen dituzte eta horrek abantaila lehiakorrek ematen dizkiete haien jarduera garatzeko.

HARDWAREA

- Lehen mailako fabrikatzaileekin zuzenean negoziatzen ditugu gure bezeroen beharretara egokitutako ekipoak, baina enpresa bakoitzak behar jakinak dituen bezala, bezeroek haien eskakizunen arabera era ditzakete taldeak, guk egindako kudeaketarekin. Bezeroari erantzen diogun balioa, baldintza ekonomikoak hobetzetik haratago doa; horretarako, bezeroaren beharretara egokitutako zerbitzua eskaintzen du bantatzaile homologatu batek eta bezeroari zuzenean eskaintzen dio salmenta zerbitzua, ezarritako epean; pertsonalizatutako maniobra stockak ere ezar daitezke. Gainera, ekipoek berme zabala daukate eta enpresaren egoitzan bertan eskaintzen zaie zerbitzua.
- Gure bezeroak salneurrietan eta teknologien eboluzioan eguneratuta mantentzeko asmoz, hiru hilean behin aztertzen da katalogoa.
 - Negoziatutako produktuak ondorengoak dira:

- Mahai gainerako PCak, ordenagailu eramangarriak, tabletak, monitore txikiak eta handiak, zerbitzariak, biltegiak kabinak;
- Switchak, routerrak, wifi ekipamendua, SAI sistemak;
- Inpresioa. Gure bezeroek doako inpresio-ikuskaritza izan dezakete, haien kostuak eta agiriaren kudeaketaren operatiboa hobetzeko

SOFTWAREA

- Gure bezeroak, txikiak, ertainak nahiz handiak, aholkatzen ditugu lizentzia beharrei buruz; legezko eskakizunak artatzen ditugu eta jarraian erosketan optimizatzen dugu, software egile nagusienekin zuzenean negoziatuz.
- Gure bezeroek behar duten teknologia edozein unetan izatea ziurtatu nahi dugu, horregatik aritzen gara etengabe ekoizpenerako berriazko irtenbideen bila.

ZERBITZUAK

Gure bezeroei zerbitzu profesionalen ezarpenak eta aholkularitza eskaintzen diegu, baita kudeatutako zerbitzu globalak ere enpresako ITaren kudeaketa hobetzeko eta haien ekoizpenean parte hartzeko; data center irtenbideetatik edo segurtasun-ikuskarizetatik hasita, managed services solutions-etara arte.

- Eskaintzen ditugun zerbitzu profesional nagusiak hauek dira:
 - Datacenter irtenbideak
 - Informazio-kudeaketa irtenbideak
 - Goi errendimenduko clusterrak
 - Cloud services-ak
 - Komunikazioa eta segurtasuna
 - Prestakuntza pertsonalizatua
 - Erabiltzaile-zerbitzuak
 - Ekoizpen sistemen birkonfigurazioa
 - Aktiboak suntsitzeko zerbitzuak
 - Mahaigainaren birtualizazioa
- Kudeatutako zerbitzu globalak
 - Help & Service Desk
 - Euskarrien zerbitzu espezializatuak in situ
 - Managed Services Solutions



Komunikazioak

KOMUNIKAZIOAK: Telefonía mugikorra, Telefonía finkoa eta Datu-sareak

Ategin, gure bezeroei laguntzen diegu beren konpainiaren eraldaketa digitalari heltzen irtenbiderik berritzaileenekin, horrela haien lehiakideen aurretik egon daitezten. Arlo honetako gure kudeaketa, aholkularitza eta kostuen kudeaketa eremuetan oinarritzen dugu.

- Gure bezeroak aholkatzen ditugu IKTen egungo egoeraren azterketan, hobetu beharreko alderdiak definitzen ditugu eta egin beharreko ekintzak edo proiektuak planifikatu: IP komunikazioak, mugikorrek, lankidetzarako tresnak, ikus-entzunezkoak...
- Gure bezeroentzako profil pertsonalizatuekin telefonía finkoko, telefonía mugikorreko eta datu-sareetako beharrak negoziatzen ditugu; kasu bakoitzerako hornitzaile/integratzaile egokiena aukeratzen dugu eta negoziazioa integratzeko beharrezkoa den proiektua aztertzen dugu.
- Kostuen kudeaketan bezeroen baliabideen dedikazioa murrizten dugu eta modu integralean kudeatzen ditugu lau driverrak:
 - Operadoreen tarifen optimizazioa;
 - Kontratututako tarifen ezarpen zuzena;
 - Gastuen planifikazioa;
 - Gomendatutako praktika onak.
- Europan, Amerikan eta Asian nazioarteko sareak behar dituzten bezeroei erantzuten diegu.

KATEGORIA GEHIAGO



KONTAKTUA

Zortzi toki ezberdinetan kokaturiko nazioarteko taldea dugu, bezeroak behar duen lekuan zerbitzua eman ahal izateko



Bulegoak

Bulego zentralak	China, Shanghai	China, Shenzhen
Parque Tecnológico Garaia Edificio B, 3a planta 20500 Arrasate/Mondragón Gipuzkoa/Guipúzcoa – España T: +34 943 71 19 30 FAX: 943 77 31 01 comunicacion@ategi.com Como llegar	Ategi Trading (Shanghai) Co., Ltd. Room D/F2,14F, East Ocean Center Phase II, No. 618 Yan An East Road, Huang Pu District, Shanghai, 200001, China T: 86 21 63410728/29/30 Como llegar	Room 20Cb-A1, 20F, Block B. Bank of China Tower. Caitian Road, Futian District, 518036, Shenzhen, China. T: +86 75583752452, F: +86 75583752453 Como llegar
Taiwan	Vietnam	India
T: 0086 2163410729	6th floor, Rolanno Business Center. 157 Vo Thi Sau St, Ward 6, Dist. 3, HCMC, Vietnam. T: +84 838206034 F: +84 838207335 Cómo llegar	F-89/8, 1ST & 2ND floor. Okhla In- dustrial Area. Phase I. New Delhi-110020 T: +91 11 40649000, F: +91 11 40649001 Cómo llegar
USA	México	
1401 New York Avenue, NW, Suite 1225 20005 Washington, D.C. Estados Unidos T: +1 202-463-7877 F +1 202-861-4784 mpeck@mapagroup.net Como llegar	Ejército Nacional 678, Oficina 201 Colonia Polanco C. P. 11550 MEXICO DF T: 3097-5811 Como llegar	